

# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Bortizkeriaren eta xamurtasunaren arteko oreka

Abadiñoko Muted taldeak bi disko ditu kalean dagoeneko. Metal elektronikoa lantzen du eta lan honetan pauso bat harago eman du. Melodiaren eta bortizkeriaren arteko kontraste handiagoa lortzeko, bigarren abeslaria hartu dute; gainera, Mutedek beti aldean izan dituen ukitu elektronikoak areagotu egin dira, eta irudimena erabiliz emaitzari bestelako ukitua eman diote. Metal oinarri sendoa ez da falta, ezta tarteka thrasharen garratzasuna ere; rockari ere keinu bat baino gehiago egin diote, baina melodiak pisu oso handia hartu du. Bestalde, zati orkestralak, heavya eta bestelako estiloak gehitzeko ere gai izan dira. Hitzak, berriz, gertukoak eta aldi berean hausnarketa egitekoak dira. A, eta diskoaren etekinak premia duten umeen alde lan egiten duen erakunde batentzat izango dira.



Sena  
Muted

BAGA-BIGA

Iraupena: 39'58"  
11,50 euro

MUTED

### «Sistemaren kontra joateak ez dauka zentzu askorik, guk osatzen dugulako»

**Gizakiari stop.** Gizakia da gure etsai handiena?

Bai, ez bakarrik gerrengatik eta naturaren suntsipenagatik. Arlo pertsonalean ere norbera izaten da etsai handiena. Mugak jartzen, erreprimitzen... Ironikoa da, baina zoriontasuna lortzeko askotan zure buruaren kontra jo behar duzu. Gure animalia sena gehiagotan atera beharko genuke!

**Bitxia da diskoa umeen aldekoa izatea. Metalak ere bihotz xamurra dauka?**

Diseinua eta singlea, *Sena*, jaioberri batean oinarrituta daude. Gerora, Aurralde Gobernuz Kanpoko Erakundearen bitartez egoera larrian dauden umeei laguntzea pentsatu genuen. Diskoaren etekinak beraientzat izango dira; laguntza txikia izanda ere, biziki eskertuko dute.

**Bizi kantuan ez duzue esperantza galdu...**

Orokorrean disko nahiko ezkorra da: bizitza gogorra da, nahiz eta gauza material ugari eduki. Zoriontasuna lortu nahian bizi gara; ez dugu inoiz lortuko. Zoriontasuna egoera bat da, ez helburua. *Lortuezina* abestian hitz egiten dugu horretaz.

**"Mundua nahiz eta aurrera joan, ni naiz atzean gelditzen dena". Bakardadea askotan agertzen da diskoan...**

Bai? Ez gara hortaz konturatu... sentimendu bat da. Kapitalismoaren ondorioz konturatu gabe bizitzako baloreak aldatu ditugu, berekoiak gara, gero eta bakartiagoak. Kritika baino autokritika da: sistemaren



kontra joateak ez dauka zentzu askorik, guk osatzen dugu-eta kritikaturako sistema. Hortaz konturatzek, behintzat, esperantza apur bat ematen du eta aldatzeko gai garelako adierazi.

**Abeslari berriarekin melodia asko indartu duzue eta kontrasteak nabarmenak dira.**

Hala da. Melodia indartu dugu Eneko abeslari berriarekin; Aitzol ere garrasietan indartsuago ibili da, eta orokorrean disko hau aurrekoa baino gogorragoa dela esango nuke. Muturreko aldeak bilatzen saiatu gara, melodiak melodikoago egiten eta parte gogorrak, gogorrago.